## ANTIGUA,KO AMA MAITEA.-

Doinua: Aingeru Uz
Izkia: Gabirel Man




*Antigua'ko Ama maitea*
*Ondarrua'ko zaindari,*
*maitetasunez arren begira*
*zeurea dan erri oni,*
*zeruko kaira eldu artean*
*izan guretzat gidari.*

## SALBE ZARRA

*1.– Jaungoikuak salbau zaitzala*
*Ama Birgiña Maria,*
*miserikordiaren Ama*
*gustiz da miragarria,*
*konfiantza osuarekin*
*nago Zugana jarria.*

*2.– Jaungoikuak salbau zaitzala*
*berriz ere dizut esaten*
*zure graziaren premiñan*
*gu beti gera gertatzen,* (bis)
*Zu bezelako beste amarik*
*ez degu ilun billatzen.*

*3.– Sispuruz eta sentimentuz*
*beti negarrez gaude gu,*
*negarrezko balle triste onek* (bis)
*zenbat dolore bizi du.*
*Zure begi errukitsu oiek*
*gugana itzuli egizuz.*

*4.– Balle triste onetatikan*
*irtetzen geradeniar*
*erakutsi egiguzu Jesus* (bis)
*gure begien aurrian*
*Zure sabeleko frutu ori*
*guztion zorionian.*

*5.– O klementisima deitzen dizug*
*Ama guztizko garbia,*
*O piadosa zein andia dan* (
*zure miserikordia.*
*Penen artetik zugana gatoz*
*Ama Birgiña Maria.*

*6.– Anima galdu ez dezakigun*
*eskatzen dizut gogotik*
*apartatutzen lagundutzeko*
*pekaturako bidetik.*
*Jaungoikoaren Ama santa*
*erregu ezagu gugaitik.*




*Bateltxoaren antera*
*dabil gure anima gaixoa,*
*ekaitz onetan Ama*
*luzatu zeure besoa.*
*Zeure laguntzaz izan gaitezen*
*emen kristiñau zintzoak*
*ta donokian betiko*
*maitale zoriontsuak.*

---

7.– *Pekatariok egon gaitezen*
*gu beti prebenituak*
*izan gaitezen alkantzatzeko*
*guztiok mereziduak,* *(bis)*
*gure Jaun eta Jesukristoren*
*promesamentu santuak.*

8.– *Begira ezazu Ama maitea*
*gu nola bizi geraden,*
*peligro eta tentaziua* *(bis)*
*besterik ez dago emen*
*zure anparuan artu gaitzazu*
*betiko glorian. Amen.*

